



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko irailaren 24a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Errenta Bermatuari buruzko Foru Legea aldatzeko asmoari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (3. or.).
- Galdera, 2016ko hezkuntza-itunaren proposamenean jasotako planteamendu eta printzipioak mantentzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, bost hilabete baino gehiago lan egin duten bitarteko langileen kontratua uztailean eta abuztuan luzatze aldera Hezkuntza Departamentuak eta sindikatuek egindako hezkuntza-itunari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutua izanen denaren helburu nagusiei buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Nafarroako 2020rako aurrekontuen aurreproiektuari buruzkoa. José Suárez Benito jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, NA-6900 errepidearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasuna bermatzeko jarduketei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroa Bekei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Siemens Gamesaren produkzioaren balizko deslokalizazioari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Esako urtegiaren eta urtegia handitzeko obren segurtasunari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun-garraioko kontratuen aberaste bidegabeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Cordovillako lurzatian ezartzeko interesa erakutsi duten enpresa-taldeei buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (9. or.).
- Galdera, emakumeen eta neskatoen sexu-salerosketa eta -esplotazioari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Egako adarraren exekuzio-egoerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, ingelesez ikasteko programa garatze aldera legegintzaldi honetarako aurreikusi den planari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, gure lurraldean Lanbide Heziketa bultzatzeko aurreikuspenei buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen 79. artikulua betetzeari buruzkoa. Nuria Medina Santos andreak egin du (11. or.).
- Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek 2018an eta 2019an egindako zigor-delituak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak egin du (12. or.).
- Galdera, irailaren 13ko 000214/2019 epaiaren gaineko balorazioari eta etorkizunari begira horrek esan nahi duenari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Tafallako eremua eta haren inguruak Babes Zibileko Larrialdi batek Larriki Ukitutako Eremuaren Deklarazioari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Skolae proiektua eta hura garatzen jardun duen lantaldea direla-eta Hezkuntza Departamentuko egungo arduradunen urratsei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (14. or.).
- Galdera, uztailaren 8an gertatutako uholdeen ondoriozko Hondamendi Eremuaren Deklarazioa dela-eta erreskate bereziko funtsen bat artikulatzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, egonkortasunaren eta independentisten mendean ez egotearen beharrari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Errenta Bermatuari buruzko Foru Legea aldatzeko asmoari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztutako galdera, Errenta Bermatuari buruzko Foru Legea aldatzeko asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonsok honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ba al duzu aurreko legegintzaldian zuen aurkako botoa izan zuen Errenta Bermatuari buruzko Foru Legea aldatzeko asmorik?

Iruñean, 2019ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, 2016ko hezkuntza-itunaren proposamenean jasotako planteamendu eta printzipioak mantentzeari buruzkoa.*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, 2016ko hezkuntza-itunaren proposamenean jasotako planteamendu eta printzipioak mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2016ko hezkuntza-itunaren proposamenean adierazi zituen planteamendu eta printzipioei eutsiko al die PSNren Gobernuak?

Iruñean, 2019ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, bost hilabete baino gehiago lan egin duten bitarteko langileen kontratua uztailean eta abuztuan luzatze aldera Hezkuntza Departamentuak eta sindikatuek egindako hezkuntza-itunari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztutako galdera, bost hilabete baino gehiago lan egin duten bitarteko langileen kontratua uztailean eta abuztuan luzatze aldera Hezkuntza Departamentuak eta sindikatuek egindako hezkuntza-itunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Bonilla Zafrak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak gauzatu al du bost hilabete baino gehiago lan egin duten bitarteko langileen kontratua uztailean eta abuztuan luzatze aldera Hezkuntza Departamentuak eta sindikatuek egindako hezkuntza-itunean adostutakoa? Ezezkoan, Gobernuak noiz gauzatuko du konpromiso hori?

Iruñean, 2019ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutua izanen denaren helburu nagusiei buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutua izanen denaren helburu nagusiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blascok, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zur departamentuak gazteriaren arloko politikak babestu eta sustatzen dituela jakinda, zer helburu lehenesten duzue Nafarroako Gazteriaren Institutua izanen dena garatzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

Galdera, Nafarroako 2020rako aurrekontuen aurreproiektuari buruzkoa.

JOSÉ SUÁREZ BENITO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Suárez Benito jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako 2020rako aurrekontuen aurreproiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari José Suárez Benito jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik EH Bildurekin Nafarroako 2020rako aurrekontuen aurreproiektuaren norabidea negoziatzeko Nafarroako Parlamentura bidali baino lehen, alderdi horrek aurrekontuak babestuko dituela bermatzeko exigitu duen moduan?

Iruñean, 2019ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: José Suárez Benito

Galdera, NA-6900 errepedearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasuna bermatzeko jarduketei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, NA-6900 errepedearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasuna bermatzeko jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak batzordean ahoz erantzun dezan:

Noiz ekinen diezu NA-6900 errepedearen eta bertako Alhama ibaiaren gaineko zubiaren segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren jarduketei?

Iruñean, 2019ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroa Bekei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa Bekei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du Arartekoaren ebazpena aintzat hartzeko asmorik, onuradunek ez dezaten Nafarroa Beken dirua itzuli behar izan?

Iruñean, 2019ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Nafarroako Siemens Gamesaren produkzioaren balizko deslokalizazioari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Siemens Gamesaren produkzioaren balizko deslokalizazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera egiten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Manu Ayerdi

jaunak parlamentu honen Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan asteartean, hilaren 17an, CCOO sindikatuaren salaketa bati esker, hedabideetan ikasi genuen Alemaniako Senvion konpainiak Siemen Gamesa enpresa erosteko interesa daukela.

Sindikatuak ohartarazi duenez, balizko erosketak horrek berekin ekar lezake Espainian egiten den produkzioa Portugalera deslokalizatze makro-operazio bat; hartara, afekzioa handia izanen litzateke enpresak Nafarroan dauzkan fabriketako lanpostuetan.

Ahozko galdera:

Nafarroako Gobernuak zer informazio darabil Nafarroako Siemens Gamesaren produkzioaren balizko deslokalizazioari buruz? Eta, kasua bada, ba al du neurririk hartzeko asmorik balizko deslokalizazio hori ekiditeko eta, hortaz, lanpostuak galtzea ekiditeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Esako urtegiaren eta urtegia handitzeko obren segurtasunari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Esako urtegiaren eta urtegia handitzeko obren segurtasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo kontroleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Esako urtegiaren egonkortasunari eta segurtasunari buruzko azterlan independente bat agindu eta esleitu zuen bere garaian. 7 hilabeteko epea ezarri zen azterlana egiteko.

Espainiako Gobernuak, berriz, Trantsizio Ekologikorako Ministerioaren bidez Bide, Ubide eta

Portuetako Ingeñariaren Elkargoari agindu zion urtegia handitzeko obren segurtasunari buruzko informazio guztia azter zezan.

Gobernuak ezagutzen al du Esako urtegiaren segurtasuna dela-eta Geoconsult España, Ingenieros consultores SA enpresari agindutako

txostenaren edukia edo ba al daki txostena zertan den? Betiere, Gobernuak zer informazio eman dezake Esako urtegiaren segurtasunaren eta urtegia handitzeko obren egoerari buruz?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun-garraioko kontratuen aberaste bidegabeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun-garraioko kontratuen aberaste bidegabeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer egingen du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun-garraioko kontratuen aberaste bidegabeari, zeina luze baitoa, zuzentzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Cordovillako lurzatian ezartzeko interesa erakutsi duten enpresa-taldeei buruzkoa.

MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Cordovillako lurzatian ezartzeko interesa erakutsi duten enpresa-taldeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikea taldeak eta Nasuvinsa sozietate publikoak Cordovillan ezartzeko akordiarri uko egin ostean eta zenbait enpresa-taldek lurzati horretan ezartzeko interesari buruz agertu diren albisteak ikusita,

Zer taldek adierazi dute Cordovillako lurzatian ezartzeko interesa, zertan dira talde horiekin izandako elkarrizketak eta zer baldintza jarri du mahai gainean zuk zuzentzen duzun departamentuak proiektu berri bat baloratzeko orduan?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

Galdera, emakumeen eta neskatoen sexu-salerosketa eta -esplotazioari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, emakumeen eta neskatoen sexu-salerosketa eta -esplotazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Lehendakariak kontseilariak Legebiltzarren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Irailaren 23an Emakumeen eta Neskatoen Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpide horren gaineko daturik ez daukagunez, Gobernuak zer lehentasun dauka arlo horretan?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Egako adarraren exekuzio-egoerari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Egako adarraren exekuzio-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauquik, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Elizalde kontseilariak 2018ko azaroaren 8an iragarri zuen Ega ibaiaren adarra egiteko egutegia prest egonen zela 2018aren amaiera alderako edo 2019aren hasiera alderako. Lehendakari andrea, egutegi hori zertan den esan diezagukezu?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, ingelesez ikasteko programa garatze aldera legegintzaldi honetarako aurreikusi den planari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkeztutako galdera, ingelesez ikasteko programa garatze aldera legegintzaldi honetarako aurreikusi den planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ingelesez ikasteko programak 2015-2019 legegintzaldian izan duen geldialdia ikusita,

Hezkuntza Departamentuak zer garapen-plan dauka gogoan 2019-2023 legegintzaldirako Ingelesez ikasteko programa dela-eta, jarduketa eta epeen gaineko aurreikuspenei dagokienez?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, gure lurraldean Lanbide Heziketa bultzatzeko aurreikuspenei buruzkoa.

JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztutako galdera, gure lurraldean Lanbide Heziketa bultzatzeko aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua eratu ostean, Hezkuntza Departamentua indartu egin da Lanbide Heziketako Zuzendaritza Nagusia eratzean, Gobernuak prestakuntza-mota horrekin duen konpromisoaren erakusgarri. Gauzak horrela,

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen dabil gure lurraldean Lanbide Heziketa bultzatzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

Galdera, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen 79. artikulua betetzeari buruzkoa.

NURIA MEDINA SANTOS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nuria Medina Santos andreak aurkeztutako galdera, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen 79. artikulua betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Nuria Medina Santos andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legearen 79. artikulua ezartzen duenez, legea indarrean sartu zenetik lau urteko epean bertan ezarritako neurrien ebaluazio bat egin behar da.

Legeak ezarritako betebeharrak hori ikusita,

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak zer aurreikuspen dabil 14/2015 Foru Legearen 79. artikulua betetzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Nuria Medina Santos

Galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek 2018an eta 2019an egindako zigor-delituak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztutako galdera, bakarrik dauden adingabe atzerritarrek 2018an eta 2019an egindako zigor-delituak direla-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gizartearen zenbait sektore alarma soziala sortzen saiatu dira, bakarrik dauden adingabeen eta delinkuentziaren arteko lotura egiten baitute.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du bakarrik dauden adingabe atzerritarrek 2018an eta 2019an egindako zigor-delituei eta egindako delitu-motei buruzko datuak direla-eta?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Blanca Regulez Álvarez

Galdera, irailaren 13ko 000214/2019 epaiaren gaineko balorazioari eta etorkizunari begira horrek esan nahi duenari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, irailaren 13ko 000214/2019 epaiaren gaineko balorazioari eta etorkizunari begira horrek esan nahi duenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko kide Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nasuvinsa sozietate publikoak 0000902/2018 zenbakiko prozedura arrunta aurkeztu zuen 1. zenbakiko Lehen Auzialdiko Epaitegian Navarra Construcciones SA (SANCO) eta Construcciones GM SA enpresek eratutako Aldi Baterako Enpresa-elkartearen aurka; hartan, Iruñeko Garraioaren

Hiriaren hirugarren fasea egiteko, merkaturatzeko eta ustiatzeko lanak esleitzeko kontratua, 2006ko martxoaren 17koa, amaiaztea eskatzen zuen, esleipen-hartzaileek kontratua ez betetzeagatik.

Epaitegi horrek irailaren 13ko 000214/2019 epaiaren bidez demanda hura ebatzi duela ikusita,

Zure departamentuak zer balorazio egiten du epai horri buruz eta horrek etorkizunari begira esan nahi duenari buruz?

Iruñean, 2019ko irailaren 19an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Tafallako eremua eta haren inguruak Babes Zibileko Larrialdi batek Larriki Ukitutako Eremuaren Deklarazioari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Tafallako eremua eta haren inguruak Babes Zibileko Larrialdi batek Larriki Ukitutako Eremuaren Deklarazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak irailaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Joan den ostiraleko bilkuran, irailaren 20koan, Babes Zibileko Larrialdi batek Larriki Ukitutako Eremuaren Deklarazioa onetsi zuen Ministroen Kontseiluak, "Hondamendi Eremua" deitu ohi dena, Tafallako eremuan eta haren inguruetan uztailaren 8an gertatutako uholdeen ondorioz.

Nola baloratzen du lehendakariak Babes Zibileko Larrialdi batek Larriki Ukitutako Eremuaren Deklarazio hori?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Skolae proiektua eta hura garatzen jardun duen lantaldea direla-eta Hezkuntza Departamentuko egungo arduradunen urratsei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Skolae proiektua eta hura garatzen jardun duen lantaldea direla-eta Hezkuntza Departamentuko egungo arduradunen urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Talde Parlamentarioaren eledun Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivite andreari zuzendua, eta heldu den osteguneko, irailaren 26ko Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sar dadin eskatzen du.

Gobernuko lehendakari zaren aldetik, nola baloratzen dituzu Skolae proiektua eta hura garatzen jardun duen lantaldea direla-eta Hezkuntza Departamentuko egungo arduradunek egin dituzten urratsak?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

Galdera, uztailaren 8an gertatutako uholdeen ondoriozko Hondamendi Eremuaren Deklarazioa dela-eta erreskate bereziko funtsen bat artikulatzeari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, uztailaren 8an gertatutako uholdeen ondoriozko Hondamendi Eremuaren Deklarazioa dela-eta erreskate bereziko funtsen bat artikulatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Builek gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ahoz erantzun diezaion.

Uztailaren 8an gertatutako uholdeen ondorioz, jarduneko Gobernuak Hondamendi Eremuaren Deklarazioa egin izana eta laguntzak jasotzeko epeek tokiko erakundeei kalte larria eragiteko aukera kontuan hartuta:

Pentsatu al du Nafarroako Gobernuak erreskate bereziko funtsen bat artikulatzea, sortutako lau laguntza-ildoez harago?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, egonkortasunaren eta independentisten mendean ez egotearen beharrari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, egonkortasunaren eta independentisten mendean ez egotearen beharrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ados al dago Chivite andrea Espainiako Gobernuak jarduneko lehendakari Pedro Sánchezen baieztapenarekin, zeinean nabarmentzen baitzuen Espainiak egonkortasuna behar duela eta independentisten mendean ez egotea?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra Talde Mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Amaitu da Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege aurreproiektuari buruzko parte-hartze prozesua. Uztailaren 19an Gobernu Irekiaren web-orrian prozesu horri buruzko txostena argitaratu zen, herritarrek proposatuta lege proiektuari egin zaizkion aldaketekin.

Gaur, irailak 23, Klimaren Goi-bilera hasiko da, zeinean mundu osoko herrialde ugariak parte har-

tuko baitu, eta horrek klima aldaketa hedabideen gaurkotasunean eta agenda politikoan kokatu du.

Jardun beharra dago, eztabaidatu eta adostasunetara iristeaz harago. Nafarroan, ibilbide luzea egin da jada klima aldaketaren aurkako borrokan eta ingurumena babestearen arloan. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten diogu Gobernuari:

Funtsezko zer hobekuntza egin dira Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Lege proiektuan herritarren parte-hartzerako prozesuaren ondoren, eta zein egutegi aurreikus-ten du Gobernuak lege proiektua Parlamentuari aurkez dakion, eztabaidatu eta onesteko?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero